

JON ANDONI DUÑABEITIA

Deskribapena: Kike Joan Andoni Duñabeitiarekin BCBL zentroan (Basque Center on Cognition, Brain and Language) ageri da eta armairu bat zabaltzen du Kikeri buruan jarriko dion aparatua bila.

Jon Andoni: “Bitu Kike zer daukagun hemen.”

Kike: “Ara!”

Jon Andoni: “Haber, utzidazu ikusten burua...bai, hauxe izango da, izan behar.”

Kike: “Hola jarriko dut?”

Jon Andoni: “Holaxe, holaxe, barrura arte sartu eta belarriak kanpotik atera. Holaxe, txikitxoak dira.”

Kike: “Hola ikusten direla...”

Jon Andoni: “Listo!”

Deskribapena: Ordenagailu bat dagoen gela batera sartzen dira.

Kike: “Ta, zer egin behar dugu hemen?”

Jon Andoni: “Ba, bitu Kike, hau elektrofisiologia deitzen den teknika bat da eta honekin, kable hauekin, neurtuko duguna da zure garunaren ala zerebroaren prozesamendua noiz gertatzen den eta horretarako kable hauek konektatu egin behar ditugu honera eta orain zure garunaren informazioa hemendik juten da eta guk jasotzen dugu gure ordenagailuetan. Egin behar duzuna da agertzen diren hitzen kolorea esan behar didazu baina kolorea ez irakurri baizik eta bakarrik kolorea esan.”

Kike: “Ea ba!”

Deskribapena: Ordenagailuan hitz desberdinak ageri dira kolore desberdinez, “urdina” urdinez, “gorria” horiz...

Kike: “Urdina, gorria, horia, urdina, aah, horia, hemen tranpa dago, eh! Gaiztoak zarete, eh!”

Jon Andoni: “Bagara bai! Bai hortan datza!”

Kike: “Eta orain nora goaz?”

Jon Andoni: “Beste batera!”

Kike: “A bai?”

Jon Andoni: “Benga, goaz!”

Kike: “Ea ba, goazen, goazen!”

Deskribapena: Kikek buruan duen tramankulua kentzen du eta badoaz.

Jon Andoni: “Ba bitu Kike, beste teknika berri bat, hau erresonantzia magnetikoa deitzen da!”

Kike: “Kontxo!”

Jon Andoni: “Eta honekin zure garunaren egitura eta funtzionamendua ikusteko gaitasuna izango dugu.”

Kike: “Aiba!”

Jon Andoni: “Gura baldin baduzu, prestatu eta sartuko gara!”

Kike: “A bai?”

Jon Andoni: “Bagoaz!”

Deskribapena: Kikek arropak aldatu ditu eta erresonantzian sartzen ikusten dugu. Ondoren, Jon Andoni agertzen da ordenagailuetako garunen imajinen aurrean hitz egiten.

Jon Andoni: “Ba hemen aurrean daukagun garunean ikusi ahal doguna da ba garunaren egitura berez nolakoa den, fisura guztiak ikusiz eta garunaren, ze, atal guztiak ondo ikusiz. Eta gero beste irudi hontan daukaguna, beste buru bat da, eta buru hontan ikusi ahal doguna dia traktoak ala bideak, buru barruan dauzkagun bideak, eta informazioa nondik nora doan, buruaren barruan ala garunaren barruan.”

Kike (off ahotsa): Esperientzia ez da mingarria izan bai ordea bitxia, baina jarrai dezagun aurrera!